

NITXO, KOLUNBARIO ETA HEZURTEGIEN APAINKETA. UDAL HILERRIAREN ARAUDIA GARATZEKO ARAUAK

SARRERA

Zarauzko udal hilerriaren erregimen eta funtzionamendurako araudiak 40. artikuluan Udalari arau zehatzak garatzeko ahalmena ematen dio udal hilerrian erabili ahal izango diren apaingarriei dagokienean.

Apaingarri horien artean, nitxo, kolunbario eta hezurtegien behin-betiko apaindurazko estalkiak sartzen dira. Araudiak berak dioenez, horiek kontzesioaren titularrak jarri beharko ditu, Udalak adierazitako berezitasunen arabera.

Laister, kontsezioa amaitua duten nitxoetatik gorpuzkinak ateratzeko lanak hasiko dira; eta hezurtegi orokorrera eramango dira, edota, interesatuek hala aukeratuta, banako hezurtegi edo kolunbarioetara. Horregatik, kontzesio desberdinen titularrek jarriko dituzten apaindurazko estalkiei dagokienez bete beharreko arauak ezarri behar dira.

Horretarako, Zarauzko hilerriko nitxoak, kolunbarioak eta hezurtegiak behin-betiko ixteko estalkiak edo hilarriak ondoko arauari jarraiki egingo dira.

APAINDURAZKO XEDAPENAK

LEHENENGOA. *Nitxoak ixteko apaindurazko estalkiek bete beharreko baldintzak*

1. Materiala eta neurriak. Apaindurazko estalkia marmol “travertino” motakoa izango da, eta haren hutsuneek erretxina gardenaz beteta egon beharko dute. Estalkiak 2 zm.ko lodiera edo fondoa edukiko du; eta hilerriko

langile arduradunek jarritako nitxoak kanpotik erabat ixteko adinako neurriak izango ditu.

2. Inskripzioak eta apaingarriak: Zarauzko udal hilerriko nitxoei atxikitako hilarrietan edo apaindurazko estalkietan jarraian zehazten diren inskripzioak edo apaingarriak jarri ahal izango dira:

- a) *Hildako pertsonaren datuak.* Estalkiaren erdian, hildako pertsonaren izena eta, gehienera, bi deitura agertuko dira; beltzez grabatuta, erdian behar bezala jarrita, eta goitik beheruntz ordenatuta. Hildakoaren izena, estalkiaren goiko aldetik 25 zm.ko tartera hasi beharko da grabatzen. Izen-deituren azpian heriotza-data edo, aukeran, jaioteguna eta heriotza-data grabatu ahal izango dira; hauek ere beltzez eta zenbakitan. Grabatuko diren letrak eta zenbakiak "RAFAEL" izeneko motakoak izango dira. Batzuen zein besteen karaktereek ezingo dute 40 mm.ko altuera gainditu.
- b) *Ikurrak.* Estalkiaren goiko ezker aldean, erlijiozko izaera nahiz profanoa duen ikurren bat jarri ahal izango da; beltzez grabatuta. Ikurraren neurriek ez dituzte ustezko angeluzuzen baten lerroakadura hauek gaindituko: 20 zm.ko zabalera eta 35 zm.ko altuera, eta estalkiaren goiko aldetik zein ezkerreko kanpoko aldetik 5 zm.ko tartera trazatua.
- c) *Argazkia.* Estalkiaren goiko eskuinaldean, hildakoaren argazkia jarri ahal izango da; urre-koloreko marko obalatu batean sartuta. Markoaren neurriek ez dute 10 zm.ko altuera eta 8 zm.ko zabalera gaindituko. Markoak estalkiaren goiko aldetik 10 zm.ko tartea eduki beharko du, eta eskuineko kanpoko aldetik 11 zm.koa.
- d) *Lorontzia.* Estalkiaren beheko eskuinaldean, lorontzi bat jarri ahal izango da; atzeko aldetik estalkira finkatuta. Lorontziak gehienera 29 zm.ko altuera eta 11 zm.ko zabalera edukiko ditu, eta urre-koloreko metalezkoa izango da. Lorontziak estalkiaren beheko aldetik 5 zm.ko tartea eduki beharko du, eta eskuineko kanpoko aldetik 9 zm.koa.
- e) *Epitafioak eta oroigarriak.* Izena eta dataren azpian, testu libre bat jarri ahal izango da; behar bezala zentratuta eta beltzez grabatuta. Testuaren neurriak ez du ustezko angeluzuzen baten lerroakadura hauek gaindituko: 35 zm.ko zabalera eta 20 zm.ko altuera. Testuak estalkiaren beheko aldetik gutxienez ere 5 zm.ko tartea eduki beharko du, eta erabiliko den letramotak ezingo du hildakoaren izena grabatzeko erabilitako letraren tamaina gainditu.

- f) Argazkiaren eta lorontziaren artean edo ikurraren azpian ezin izango da inolako inskripziorik grabatu, ezta elementorik jarri.

BIGARRENA. *Kolunbarioak eta hezurtegiak ixteko apaindurazko estalkiek bete beharreko baldintzak*

1. Materiala eta neurriak Apaindurazko estalkia marmol zurikoa eta "Almeria" motakoa izango da; estalkiak 2 zm.ko lodiera edo fondoa edukiko du; eta hilerriko langile arduradunek jarritako kolunbarioa edo hezurtegia kanpotik erabat ixteko adinako neurriak izango ditu..

2. Inskripzioak eta apaingarriak: Zarauzko udal hilerriko kolunbarioei eta hezurtegiei atxikitako hilarrietan edo apaindurazko estalkietan jarraian zehazten diren inskripzioak edo apaingarriak jarri ahal izango dira:

- a) *Hildako pertsonaren datuak.* Estalkiaren erdian, hildako pertsonaren izena eta, gehienera, bi deitura agertuko dira; beltzez grabatuta, erdian behar bezala jarrita, eta goitik beheruntz ordenatuta. Hildakoaren izena, estalkiaren goiko aldetik 9 zm.ko tartera hasi beharko da grabatzen. Izen-deituren azpian heriotza-data edo, aukeran, jaioteguna eta heriotza-data grabatu ahal izango dira; hauek ere beltzez eta zenbakitan. Grabatuko diren letrak eta zenbakiak "RAFAEL" izeneko motakoak izango dira. Batzuen zein besteen karaktereek ezingo dute 30 mm.ko altuera gainditu.
- b) *Ikurrak.* Estalkiaren goiko ezker aldean, erlijiozko izaera nahiz profanoa duen ikurren bat jarri ahal izango da; beltzez grabatuta. Ikurraren neurriek ez dute ustezko karratu baten 5 zm. aldea gaindituko; eta estalkiaren goiko aldetik 2 zm.ko tartera trazatu beharko da.
- c) *Argazkia.* Estalkiaren goiko ezker aldean, hildakoaren argazkia jarri ahal izango da; zilar-koloreko marko obalatu batean sartuta. Markoaren neurriek ez dute 6,5 zm.ko altuera eta 5,2 zm.ko zabalera gaindituko. Markoak estalkiaren goiko aldetik 2,75 zm.ko tartea eduki beharko du, eta ezkerreko kanpoko aldetik 2,4 zm.koa.
- d) *Lorontzia.* Estalkiaren beheko eskuinaldean, lorontzi bat jarri ahal izango da; atzeko aldetik estalkira finkatuta. Lorontziak gehienera 12,2 zm.ko altuera eta 7,2 zm.ko zabalera edukiko ditu, eta marmol zurizkoa izango

da. Lorontziak estalkiaren beheko aldetik 0,5 zm.ko tartea eduki beharko du, eta eskuineko kanpoko aldetik zm. 1ekoa. Aurreko aldea kurbatua edukiko du eta estalkitik 3,5 zm. nabarmenduko da.

HIRUGARRENA. *Xedapen orokorrak nitxo, kolunbario eta hezurtegiertzat*

1. Aurreko paragrafoetan zehaztu denetik aparte, nitxo, kolunbario eta hezurtegien apaindurazko estalkietan ezin izango da inolako inskripziorik grabatu, ezta elementurik jarri.

2. Nitxo, kolunbario edo hezurtegi baten kontzezioa ematean, Udalak bere erabakian araudi honen bete beharra jasoaraziko du, eta interesatuari ale bat emango dio.

3. Udalak estalkiak kenduarazi ahal izango du, baldin eta horiek apaindurazko xedapen hauek betetzen ez badituzte; eta, halaber, pertsonen duintasen aurka doazen edo kokalekuaren ingururako itsusgarri, lotsagabe edo desegokiak diren epitafio, oroigarri edo ikurrak jartzen badira hilarrietan.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Arau honek, hasierako izaeraz, 1999ko irailaren 15ean egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 1999ko irailaren 16an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Arau hauek behin-betiko onestuak geratu zirela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 1999ko azaroaren 15ean (zk. 218) argitaratu zirela.

Zarautzen, 1999ko azaroaren 16an

Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Arau hauen aldaketa, hasierako izaeraz, 2001eko azaroaren 28an egindako osoko bilkuran onestu zuela Udalbatzarrak.

Zarautzen, 2001eko azaroaren 29an
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, jendaurrean egon zen bitartean inolako alegaziorik aurkeztu ez zenez, Arau hauen aldaketa behin-betiko onestua geratu zela eta Probintziako Aldizkari Ofizialean 2002ko otsailaren 1ean (zk. 21) argitaratu zela.

Zarautzen, 2002ko otsailaren 4an
Idazkaria